



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2010-03-26ko EZ OHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta hamargarren urteko martxoaren hogeita seian, arratsaldeko 16:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ez ohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Itziar Arkonada Lizarraga eta Begoña Garmendia Vazquez andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Igone Arruti Olazabal andreak.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Jose Mari Saiz Pagoaga jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA

INGURUMEN JARDUKETARAKO SOZIJETATE PUBLIKOAREN (IHOBE, S.A) ETA BEIZAMAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, BERRINGURUMENA PROGRAMAREN HARIRA “ BEROKUNTZA ETA A.C.S EKOIZPENA BIOMASA GALDARADUN DISTRICT HEATING INSTALATUTA” PROIEKTUA GAUZATZEKO.

Berringurumena programaren harira “Berokuntza eta A.C.S ekoizpena biomasa galdaradun District Heating instalatuta proiektua gauzatzeko ” Ihobe eta Beizamako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena ekarri da Udalbatzara onartua izateko.



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

Hitzarmenaren azalpena egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, ondorengo erabaki du.

Lehena.- Onartzea akta honi atxikitzen zaion berringurumena programaren harira "Berokuntza eta A.C.S ekoizpena biomasa galdaradun district heating instalatuta" deritzon proiektua gauzatzeko Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren (Ihobe, S.A) eta Beizamako Udalaren arteko lankidetz hitzarmena

Bigarrena.- Alkatea eskuordetzea aipaturiko hitzarmena sinatu ahal izateko.

BIGARRENGO GAIA
"EGUZKI ENPRESARI ERREKERIMENDUA; R-21 EREMUAN URBANIZAZIO LANEN ONDORIOZ HERRIKO UR HORNIDURA SAREAREN SORTU DITUEN MATXURAK KONPONTZEKOA

Beizamako udal arkitekto aholkulariak, Arau Subsidiarioetako R-21 eremuan egin diren urbanizazio lanen ondorioz herriko ur hornidura sarearen sortu diren matxuren inguruan txostena aurkeztu du.

Txostenak hitzez hitz ondorengo adierazten du:

" R21 Beizamako udalerrian aurkitzen den eremuan, Eguzki S.L enpresak, egindako urbanizazioan, herriko ur hodian matxura bat dago, bertan biltegitik ura ponpatzen den hoditik ura ateratzen delako.

2010. urteko martxoaren 15an, Eguzki S.L enpresako ordezkari batekin egindako bisitan, argi eta geratu zen, ze puntutan zetorren uraren ihesa. Azken urtean eremu horretan egin diren obra bakarrak, R-21 eremua urbanizatzeko Eguzki S.L enpresak egindakoak dira.

R-21 eremuan egindako lur mugimendu eta obren ondorioz, bertatik



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

pasatzen den eta ur biltegira doan ur ponpatuaren hoditik izugarrizko ur emaria dator, obra egin den eremuaren beheko aldean dagoen herrizko hormatik behera.

Herriko ur hornidurarentzat behar beharrezkoa da, ur sare hau martxan jartzea, herriko biltegia edozein momentutan hututa gelditu daitekelako eta ez delako posible bertara beheko errotatik ura ponpatzea. Bestalde urak urak urbanizazioan ere egin ditzaken kalteak handitu aurretik, konponketa egin behar da.

Hori honela, ahalik eta azkarren, hodiaren konponketa egiteko beharrezko lanekin hastea eskatzen zaizue. Konponketa egiteko 7 egunetako epea ipintzen zaizuelarik.”

Hori dela eta udal arkitekto aholkulariak egindako txostenean oinarrituz, Udalbatzak, aho batez, ondorengo erabakia hartu du:

Lehena.- Eguzki S.L enpresari errekeritzea, jakinerazpena jaso eta 7 eguneko epean, R-21 eremuan egindako urbanizazio lanen ondorioz herriko ur hornidura sarearen sortu dituen matxurak konpondu egin beharko dituela.

Bigarrena.- Ohartaraztea Eguzki S.L enpresari, aipaturiko epean konponketa lanak egiten ez badituela, Udaletxeak berak edo hirugarrenengo batek subsidiariko gauzatuko dituela beti ere bere kontura.

HIRUGARREN GAIA

IPARKUTXAREKIN ALTXORTEGI KREDITUA SINATU AURRETIK ENERPELLET ENPRESAK EMAN BEHAR DITUEN URRATSAK: ORAINDIK BUKATU GABEKO OBRAK GAUZATZEA, INSTALAKUNTZAK EUSKO JAURLARITZAKO INDUSTRIA SAILAN LEGEZATZEA, FINANTZATZEKO HITZARMNA SINATZEA, DAGOKION KANONA ORDAINTZEA ETA OBRAREN LIKIDAZIO ZIURTAGIRIA ETA BESTELAKO BEHARREZKO DOKUMENTUAK UDALETXERA IGORTZEA.

Beizamako Udalak Iparkutxa erakundearekin altxortegi kreditua sinatu aurretik “Enerpellet S.L” enpresak urrats batzuk eman behar ditu.

***Lehendabiziko urratsa** oraindik bukatu gabeko obrak gauzatzearena izango da.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aipaturiko lan horiek Beizamako udal arkitekto aholkulariak, egindako txostenean jasotzen dira. Txostenak hitzez hitz ondorengoa adierazten duelarik:

“AURRETIKOAK

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2008ko maiatzaren 20a,n instalazioak eraiki eta ustiatzeko bideragarritasun azterketaren onespena eta jendeaurreko erakusketa iragarkia argitaratu zen.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2008ko abuztuaren 22an, Beizamako udalerrian pellet bidezko ur bero eta berogailu sistema eraiki, ustiatu eta mentenimendu kontratua esleitzeko iragarkia argitaratu zen.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2008ko urriaren 30an, Pellet bidezko ur bero eta berogailu sistamarako deialdia hutsik uztearen iragarkia argitaratu zen.

2009ko urtarrilaren 14an Enerpelletek ur beroa eta berogailua biomasako galdara bidez hornitzeko obra eta jarduera baimena tramitzeko baimena eskatu dute.

2008ko azaroaren 26an enerpellet enpresarekin Beizamako Udalak udalerrian pellet bidezko ur bero eta berogailu sistema eraiki, ustiatu eta mantentzeko kontratua sinatu zen.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2009ko urtarrilaren 30an, ur bero eta berogailu sistema jarduerarako baimenaren eskaera jende aurrean jartzea argitaratu zen.

Kontratuaren baldintza pleguan 4 hilabeteko epea jarri zen, beharrezko instalakuntzak eta eraikinak eraikitzeko, R-21 urbanizazioa amaitzerako udalareneskura jarri beharko zirela obrak eta zerbitzua mrtxan jarrita egon beharko lukete.

HAUSNARKETAK



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2010eko otsailaren 25ean, obren tokira bisita egin ondoren, obrak amaitzeko daudela ikusten dut, bertan ez dira amaitu proiektuan aurreikusitako berogailu sistamarako obrak, udal eraikinetan, "district heating" erako hodiak bistan daude baina oraindik ez dira amaitu lanak, bestalde galdara gelarako eraikinaren lanak ere amaitzeko daude, bertan hodiak eta eremua txukuntzea falta delarik.

Instalakuntzari dagokionez, martxan dagoela jakina da, baina arazo askorekin eta udalak ez du jaso oraindik eraikina martxan jartzeko beharrezko dokumentazio guztia, ez dira aurkeztu galdara gela martxan jartzeko industria delegarizatik beharrezko dokumentuak. Beraz kontratua sinatu zenetik 14 hilabete igaro dira eta lanean adjudikatzaileak egin beharreko obrak amaitu gabe ditu."

*"Enerpellet S.L" enpresak eman behar duen **bigarren urratsa** instalakuntzak Eusko Jaurlaritzako Industria Sailan legeztatzea izango da.

Bi urrats horiek eman ondoren Beizamako Udalak irekitze baimena emango dio.

*"Enerpellet S.L" enpresak eman beharko duen **hirugarren urratsa** pellet bidezko Acs sistema finantzatzeko hitzarmena sinatzea eta dagokion kanona ordaintzearena izango da. Hau da, egindako inbertsio osoaren kostuaren (BEZa barne) eta Erein eta Ihobetik jasoko den dirulaguntzaren arteko diferentzia Beizamako Udalari ordaindu beharko dio.

"Enerpellet S.L" enpresak hiru urrats horiek eman ondoren, Beizamako Udalak Iparkutxa erakundearekin altxortegi kreditua sinatuko du Erein eta Ihobetik jasotzeko duen dirulaguntza kopuruagatik. Altxortegi kreditutik sortzen diren gastu guztiak "Enerpellet S.L" enpresak beregain hartuko ditu.

*Azkenik, "Enerpellet S.L" enpresak eman beharko duen **laugarren urratsa**, obraren likidazio ziurtagiria eta bestelako beharrezko dokumentuak udaletxera igortzearena izango da ezinbestekoa delako Beizamako Udalak aipaturiko erakundeen dirulaguntza jaso ahal izateko.

Behin "Enerpelett S.L" enpresak aipaturiko urrats guztiak eman ondoren,



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Beizamako Udalari fakturak helaraziko dizkio.

Ondoren udalak lehenbailehen ordainduko ditu dirulaguntzak zuritu eta jasotzeko.

Udalak "Enerpelett S.L" enpresari ordainduko dion dirua proiektuan jasotzen diren eraikin publikoetaraino (Udaletxe, natur eskola eta aterpetxeko) instalakuntzak bukatzeko diru -aurrerakina izango da.

Beraz eta aurreko guztiaren azalpen bat egin eta udal arkitekto aholkulariak egindako txostenean oinarrituz, Udalbatzak, aho batez, erabaki du "Enerpelett S.L" enpresari ondorengo jakinarazpenak egitea:

Lehena.- Udal arkitekto aholkulariaren txostenean jasotzen diren obrak oraindik amaitzeko daudela.

Bigarrena.- Instalakuntzak Eusko Jaurlaritzako Industria Sailan legeztatu egin behar dituela.

Hirugarrena.- Pellet bidezko Acs sistema finantzatzeko hitzarmena sinatzea eta dagokion kanona ordaintzea falta zaiola. Hau da, egindako inbertsio osoaren kostuaren (BEZa barne) eta Erein eta Ihobe erakundeetatik jasotzen den dirulaguntzaren arteko diferentzia.

Laugarrena.- Obraren likidazio ziurtagiria eta bestelako beharrezko dokumentuak udaletxera igorri beharko dituela Erein eta Ihobeko dirulaguntzak jaso ahal izateko.

LAUGARREN GAIA
2/2009 KREDITU ALDAKETA

Mahai gainean geratu da hobeto aztertua izateko

BOSGARREN GAIA
BAKE EPAITEGIKO IDAZKARI BERRIAREN IZENDAPENA.

Martxoaren 26tik Beizamako Bake Epaitegiko idazkaritza hutsik



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

gelditu da, eta lan hoiek egingo dituen norbaiten izendapena egin beharra dago.

Gauzak horrela Alkateak lan hoiek egin ditzan Udaleko idazkari-kontuhartzailearen izendapena proposatzen du. Izenpanera egiteko arrazoiak honako hauek lirateke:

- Preparazio egokia du: zuzenbidean lizenziatua da
- Ez du abogazia ejerzitzte, ez dago inkonpatibilitate arazorik
- Gaur egun udaletxean dagoen pertsonalaren artean egonkortasun gehien daukan lanpostua okupatzen du

Horrenbestez, izendapena botuetara jartzen da, udalbatzak ahobatez hau ERABAKI DU:

Lehena.-Beizamako Bake Epaitegiko idazkari, Jose Mari Saiz Pagoaga izendatzea, gaur egungo udaleko idazkari-kontuhartzaile dena.

Bigarrena.- Akordio honen berri ematea Justizia Administrazioarekiko Harremanen alorrean eskumena duen zuzendaritzari.

SEIGARREN GAIA
OTALAZTEGI ENPRESAK AURKEZTURIKO 2. ZIURTGIRIA ONARTZEA

Udal honetako osoko bilkurak 2009-ko arazoaren 30ean onartu zuen, besteen artean, "Excavaciones Otalastei, S.L."-riz esleitzea Beizamako Iturburu ur biltegiko ur bilketa hobetzeko lanak.

2010eko otsailaren 12an 9/2010 Alkateza Dekretuz lanen lehenengo ziurtagiriaren ordainketa egitea onartu zuen eta "Excavaciones Otalastei, S.L."-ri 24.940, €ko (BEZ barne) ordainketa egin zitzaion.

Hurrengo Osoko bilkuran erabaki honen berri eman zen.

Oraingo honetan lanei dagolien bigarren ziurtagiria aurkezten da eta bere zenbatekoa 17.307,49eurokoa da (BEZ barne).

Ikusirik, jasotako ziurtagiriak udala aholkatzen duen arkitektoaren oniritzia jaso duela, Udalbatzak, aho batez, ondorengo erabakia hartu du:



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

Lehena.- Lanen bigarren ziurtagiriaren ordainketa egitea onartzea eta "Escavaciones Otalastei, S.L."-ri 17.307,49 €ko ordainketa hori egitea (BEZ barne).

ZAZPIGARREN GAIA

OHIKO UDAL BILKUREN DATA ALDAKETA ONARTZEA

Beizamako Udalak Ohiko Udalbilkurak ospatzeko onartua duen data, hilabeteko azken asteazken arratsaldekoa da. Hala ere metaketa erregimenean datorren Idazkari-kontuhartzaileak ezin duenez asteazkenetan Udal Bilkuretara etorri, berarekin adostu ondoren Udalbatzak, aho batez, ondorengo erabakia hartu du:

Lehena.- Ohiko Udalbilkurak ospatzeko data aldatu hilabeteko azken asteazkenetik, hilabeteko azken astelehen arratsaldera.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 18:30etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.